



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2021EKO MAIATZAREN 24KOA, BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ BERMATZEN DA IKASTETXE PUBLIKO, ITUNDU ETA PRIBATUETAKO JANTOKIETARAKO AZPIKONTRATATUTAKO ZERBITZU-ENPRESEK KOMUNITATEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN MAIATZAREN 26RAKO DEITUTAKO GREBAN

ELA sindikatuak greba deitu du 2021eko maiatzaren 26rako, lanaldi osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko, itunpeko eta pribatuetan eskola-jantokietan azpikontrataturako zerbitzuak ematen dituzten enpresetan lan egiten duten langileentzat.

Deialdia egin dutenen esanetan, grebak honako helburu hauek ditu: «*Ikastetxe publiko, pribatu eta itunpekoetan jantoki-zerbitzu segurua eta adostua aldarrikatzea, zerbitzuak ematen dituzten pertsonen osasuna babestea, bai eta enpleguari eta lan-baldintzei eustea ere, ez baita langileen legezko ordezkariekin kontsultarik egin, ikasturte berriari begira aipatu diren zerbitzuen neurri eta baldintzei dagokienez*». Halaber, honako hau ere lortu nahi dute: «*Hezkuntza Saila sektorean ordezkartza duten sindikatuarekin benetako negoziazio-prozesu bati ekitera behartzea, ikastetxe publikoetan, itunpekoetan zein pribatuetan eskola-jantokien zerbitzuetako langileen lan-baldintzak eta enplegua berreskuratzea eta mantentzea bermatuko duten baldintzak negoziatu eta adosteko*».

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, lana... Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren deialdiak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Kasu honetan, ebazpen honen hasieran azaldu bezala, egun bakar baterako deitutako greba da, 2021eko maiatzaren 26rako, lanaldi osoan, eta EAEko ikastetxe publiko, itunpeko eta pribatuetan eskola-jantokietan azpikontrataturako zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileak dira grebara deitu direnak.

Eskola-jantokiei dagokienean, Hezkuntza sailak emandako azken datuen arabera, greba-deialdiak honako hauei eragingo die: 75.000 ikasle baino gehiagori, guztira 515 jantokiri, eta horietan lan egiten duten gutxi gorabehera 3.880 begiraleri. Hezkuntza-eta enpresetako langileak dira grebara deitu direnak:

Mailak	Jantokira doazen ikasleak	Begiraleak
H.H. 1. Zikloa: 2 urte	4.282	582
H.H. 2. Zikloa: 3-5 urte	19.656	1.444
L.H: 6-11 urte	45.445	1.626
DBH	6.350	214

Datu horiei, ikastetxe itunduetako eta pribatuetako jantokietan ukitutako ikasleak gehitu behar zaizkie datu horiei.

Jantokietan ondorengo zerbitzuak ematen dira: batetik, menuak prestatu, banatu eta officeko lanak egitea, eta, bestetik, jantokiko begirale-zerbitzua ematea. Nahiz eta kolektibo bakoitzak egiten dituen zereginak berdinak izan hezkuntza-maila guztietarako; aldea dago ikasleek adinaren arabera behar duten arreta-mailan (zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta arreta-maila eta laguntza handiagoa behar dute) edo beste inguruabar batzuetan, hala nola hezkuntza berezian. Kolektibo horiek integratzeko gaur egungo joeraren barruan, badira hezkuntza bereziko gela egonkorrak eta gela «arruntak». Gela horietan eskolatzen diren ikasleek desgaitasuna izaten dute edo mendekotasun maila altuak; laguntza orokorra behar dute, arreta oso indibidualizatua eta baliabide trinkoak eta jarraituak. Hori guztia kontuan hartu beharko da gutxienerako zerbitzuak ezartzean.

Bestalde, besteak beste, bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako, hezkuntzarako eta lanerako eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15, 27 eta 35.1 artikuluetan eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 18. artikuluan jasotzen dira. Espainiako Estatuak honen bidez berretsi zuen: 1990eko azaroaren 30eko berrespen-agiria, Haurren Eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioarena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua. Botere publikoek bermatu behar dituzte eskubide horiek, prebentzio-neurrien eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeko neurrien bidez, eta, beraz, grebarako eskubidearen bidezko egikaritzaren aurrean ezin dira babes egokirik gabe geratu. Babes horrek, bestalde, ezin du inola ere greba-eskubidea edukiz hustu, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraikiz beraren aplikazioa betiere mugatua izan behar baita.

Zerbitzu horiek funtsezkoak dira, ukitutako eskubideak ere funtsezkoak direlako —hezkuntza eta haurren eta nerabeen babes eta garapen integralarekin zerikusia duten eskubideak—. Horrela jasotzen da Estatuaren araudian: 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, berriz, hemen jasotzen da: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. Jurisprudentziak berretsitako alderdiak, Auzitegi Gorenaren aurreko aginduetan behin eta berriz adierazitakoak: Auzitegi Gorenaren 1994ko maiatzaren 20ko epaia, eta Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 14ko epaia. Epaia horietako lehenak honako hau ezartzen du: «ikasleei eguerdian bazkaria erabat kentzeak osasunerako eta hezkuntzarako eskubide konstituzionalak urratzen ditu». Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, lurralde-deialdien aurrean, funtsezko izaera hori aitortu du (ikus 2010eko abenduaren 22ko eta 2011ko urtarrilaren 13ko epaiak).

Espainiako Konstituzioaren 15. eta 43. artikuluetan jasotzen dira bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako konstituzio-eskubide horiek —osasunerako eskubidearekin batera—, eta garrantzi berezia dute gaur egun. Izan ere, ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariek hartutako neurri eta gomendioen erdian egingo dela. Horrela,

kontuan hartu behar da Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuak, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa, ezarritakoa betetzen dela, 3. artikuluan funtsezko jardueretarako prebentzio-neurrietan ondokoa xedatzen baitu: «*Aurrez aurreko hezkuntza-, prestakuntza-, eta ikerketa-jarduera oro, araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagokienez, etapa eta maila desberdinak barne, eta goi-mailako hezkuntzari dagokionez, bai eta bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarren irakaskuntza-jarduerei dagokienez ere, eranskin honetan jasotako arauen arabera garatuko da, eta betiere 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurka jarduteko Hezkuntza Sailak egindako protokolo orokorraren arabera*». Horrekin batera, Osasun sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduak ezartzen duena beteko da, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzko 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina aldatzen duena. Agindu horren 5.puntuak ondorengo ezartzen du: «*hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerari buruzko neurriak*» atalean jasotzen du «*Hezkuntza, prestakuntza- eta ikerketa-jarduera presentzial guztiak prebentzio-, osasun- eta higiene-arauak errespetatuz egingo dira, babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz, eta maskarak erabiliz*».

Bestalde, Hezkuntza Sailak etengabe berrikusten dituen hainbat dokumentu egin ditu ikastetxeetako SARS-CoV-2 koronabirusaren aurreko neurriak eta gomendioak zehazteko. Egungo osasun-egoeraren ondorioz, gainera, Osasun Sailak prebentzio-alderdi gehiago gomendatu ditu alde z aurreko protokoloekin alderatuta. Horregatik, 2021eko otsailaren 12an eguneratua dagoen protokolo berrienak, "Ikasturte hasierarako Jarduketa-protokolo Osagarria eta ikastetxeetan COVID-19 kasuak agertzen direnerako Jardunbideak" izenekoak, "Euskal autonomia erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtea" izeneko protokoloan eta "Covid-19ari aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan" dokumentuan ezarritako neurriez gain, prebentzio-neurri gehigarriak planteatzen ditu.

Aipatutako 2021eko otsailaren 12ko protokoloak ondorengo zehazten du eskola-jantokiei dagokienez: «*Jarduera Protokolo Osagarri honen helburua da Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra (2020-2021 ikasturtea) eta Prebentzio neurriak (2020- 2021 ikasturtea) dokumentuetan ezarritakoez gain, neurri osagarriak planteatzea, 2020- 2021 ikasturtearen hasieran, kontuan hartuta pandemiak berriki izan duen egoera eta bilakaera*».

Azkenik, eta arestian aipatutakoari dagokionez, kontuan hartu behar da txertaketa-kanpainak aurrera egiten jarraitzen duen arren, eta horrek pandemiak eragindako egoera ikastetxeetan pixkanaka hobetzen joango dela aurreikusten den arren, une honetan ezarritako prebentzio-neurriak indarrean daudela.

Irailaren 15erako hezkuntza-sektorean deitu zen grebaren harira (eskola-jantokiei ere eragin zien), pandemiaren egoerari buruzko txostena eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzari. Txostenean azaltzen

zen «2020-2021 ikasturtearen hasierako jarduketan protokolo osagarria, eta ikastetxeetan COVID-19 kasuen agerpenaren aurreko jarduketak» izenekoan jasotzen ziren neurriak greban ere bete behar zirela, eta ondorioetan ezartzen zuen Hezkuntza Sailean indarrean dauden jarduera-protokoloetan eta ikastetxeetako kontingentzia-planetan COVID-19ari aurre egiteko aurreikusitako prebentzio-neurriei eusteko behar adina langile egon beharko zirela, betebeharrak kontuan hartuta:

- Talde egonkorra mantentzea
- Pertsona-fluxuak antolatzea
- Distantziak mantentzea
- Maskarak erabiltzen direla zaintzea
- Eskuak garbitzea eta instalazioak garbitu eta desinfektatzea
- Kasuak kudeatzea

Azken puntu horri dagokionez, ikastetxeek behar adina informazio eta pertsona izan beharko dituzte COVID-19 kasu positiboaren kontaktuen azterketa egin ahal izateko, eta horren ondoriozko jarduerak aplikatzeko. Ikastetxean egon beharko dira ikastetxeko zuzendaria eta COVID-19ari lotutako gaien arduraduna.

Hezkuntza-sektoreak 2020ko irailaren 15ean egindako grebaz gain, ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako jantokietako enpresa azpikontratatuek ematen dituzten zerbitzuen esparruan, beste greba-deialdi batzuk egin dira 2020ko urriaren 21ean, 27an eta 29an, eta oraintsuago, 2021eko urtarrilaren 25ean eta 2021eko otsailaren 23an eta 24an. Deialdi horiek denboran urrunago dauden beste deialdi batzuekin bat egiten dute (azken deialdiak 2010ean, urtarrilaren 26an eta 28an, martxoaren 9an eta 11n eta martxoaren 15ean, 27an, 24an eta 25ean egin ziren, eta, horien ondorioz, 2010eko urtarrilaren 25eko, martxoaren 5eko eta martxoaren 11ko gutxieneko zerbitzuen Aginduak eman ziren, hurrenez hurren). Deialdi horiek guztiek antzekotasunak dituzte hizpide dugunarekin, bai funtzio-, lurralde- eta denbora-eremuan, bai eragindako pertsonen kolektiboei -enpresei, grebarekin bat egin duten pertsonari eta ikasleei- dagokienez, eta deialdi horietarako emandako aginduak gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa ez badira ere_ aurrekari horiek aukera ematen dute egiaztatzeko deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesek Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan —grebarakoa barne— eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak, agindu honek babestu nahi dituenak.

Azkenik, aipatutako ikastetxe publiko eta itunduetako eskola-jantokietan azpikontratatuak zerbitzuak ematen dituzten enpresen sektorean deitutako grebetako bati dagokionez (zehazki, urriaren 21, 27 eta 29koa), gutxieneko zerbitzuei buruzko agindu bat eman zen 2020ko urriaren 20an eta ELA sindikatuak errekurritu zuen (1035/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa). Administrazioarekiko auzien salak aurkeztutako errekurtsoa ezetsi egin zuen 2021eko martxoaren 26ko 126/2021 epaian.

Kontuan hartu beharreko beste kontu bat da deialdia ohiko lanaldian egiten dela, eta horietan ikasleen ohiko bertaratzea aurreikus daitekeela, beste lanaldietan ez bezala, horietan hezkuntzako profesionalen grebak edo greba orokorrak egiten baitira.

Gutxieneko zerbitzuak zehazteko orduan, kontuan hartu beharko dira, halaber, eskola-jantokien gizarte- eta hezkuntza-izaera; jantokirik gabe geratzen diren ikasleek behar duten arreta integrala; grebaren lurraldetasuna, EAEko ikastetxe publiko eta itundu guztiei eragiten baitie, eta denbora-eremua.

Halaber, aurreko deialdietan emandako Funtsezko Zerbitzuen Aginduetan ohikoa den bezala, hezkuntza-etaparen araberrako desberdintasunak ezarri behar dira.

Beraz, jantoki-zerbitzua bermatuko da: erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuko dira, bai ikastetxeetan bertan, bai ikastetxeek azpikontrataturako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da haien banaketa. Horretarako, egokitze jotzen da greba honetan gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea sukaldeko langileen %10 egon behar duela.

Bestalde, begiraleek egiten dituzte zaintza eta laguntza jardueri dagokienean, argi dago funtsezkoa dela bi eta hiru urteko haurren eta premia bereziak dituzten ikasleen jantoki-zerbitzua artatzea; kolektibo bereziki kalteberak dira, eta modu pertsonalizatuan eman behar zaie elikadura espezifikoa eta egokia. Oinarriko eskubideak bermatzeko gutxieneko zerbitzuak finkatzeko arrazoiak dira: adin txikikoak direla (2 eta 3 urte), autonomia falta dutela eta arreta eta zaintza handia eta integrala eman behar zaiela. Horretarako, sukaldeko langileen, office-langileen eta begiraleen laguntza ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa, bertaratze-ratio hauetan: 2 urteko taldean, bederatzi hurreko talde bakoitzeko begirale bat egon behar da, eta, 3 urteko taldean, hamabost hurreko talde bakoitzeko begirale bat.

Aurreko greba-deialdietan gertatutakoaz gain, Haur Hezkuntzako kolektiboaren barruan —2 eta 5 urte bitarteko haurren hezkuntza da, eta, EAEn, jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua 23.000 baino gehiagokoa da—, 4 eta 5 urteko hurreko mendetasun-maila handia dute. Haur horiek arreta egokia jasotzen ez badute (normalean arreta handia behar izaten da), ez dute jaten, edo, jatekotan, ez dute egokiro jaten, higienerari eta osasungarritasunari dagokienez; beraz, zaintzarik eta arretarik ez badago, arriskuan jartzen da osasunerako oinarriko eskubidea, baita osotasun fisikorako eskubidea ere.

Ondorioz, kolektibo hori babesteko, begiraleen kategorian gutxieneko zerbitzu batzuk ezarri behar dira, eta, horretarako, langileen lan-kargak eta hurreko behar duten arreta hartu beharko dira kontuan.

Horretarako, egokitze jotzen da greba honetan gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea begiraleen % 10 egon behar duela.

Muntaketari, mahaien bilketari eta garbiketari dagokienez, Hezkuntza Sailak egindako «Eskola-jantokietako COVID-19aren aurkako prebentzio-neurriak» izeneko dokumentuan, bai eta eskola-jantokientzat berariaz landutako «Covid-19ari aurre

egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan» dokumentuan ezarritakoa aplikatuko da. Azken dokumentu honetan, higiene-neurriei buruzko ataletan, honako hau ezartzen da: «*Talde egonkor batek baino gehiagok mahaia partekatu behar badute, talde egonkorren arteko 1,5 m-ko segurtasun-tartea mantendu beharko da*». Era berean, garbiketa-lanei dagokienez, hauxe jasotzen da:

«3. Maiz garbitu, desinfektatu eta aireztatuko dira eskola-jantokiarekin lotutako instalazio guztiak. Arreta berezia jarriko da gainazalak, ateen heldulekuak, altzariak, konketak, zoruak eta abar desinfektatzeko.

Bereziki, janari-txanda bakoitzaren artean garbitu eta desinfektatu egin behar dira ukipen gainazalak eta -instalazioak (mahaia, aulkiak...). Bazkaltzeko txanda amaitu ondoren, eta hurrengo sartu aurretik, ikasleekin kontaktuan egon diren azalera nagusiak garbitu eta desinfektatuko dira, bai eta jantokia aireztatu ere. Txanda desberdinetako taldeak bat egitea saihestuko da. Txanden arteko aireztapen-aldi minimoa 10 minutukoa izatea gomendatzen da».

Zeregin horiek betetzeko, garbiketa-zerbitzuan lan egiten duten ohiko langileen ehuneko jakin bat ezarri behar da, benetan neurri horiek bete ahal izateko; hori dela eta, ezinbestekoa da ohiko langileen %100 agertzea lanera.

Aurretik azaldutako guztia dela bide, eta aintzat hartuta deitu den greba horretan funtsezko funtzioak zaintzen dituen gutxieneko zerbitzurik ezartzen ez bada, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte handiagoak eragin daitezkeela, gobernu-agintaritza honek gutxieneko zerbitzuak ezarri ditu agindu honetan.

Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuak, lan-harremanei buruzkoak, honako hau xedatzen du 10.2 artikuluan: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta gerora ezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzezko neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [1981\11 KAB]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikulua erekin bat etorritik (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako nahitaezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko eta greba-kasuan nahitaezko zerbitzuei eusteko aukera, eta hori egiteko neurrietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta entzunaldia eman zaie idatziz alderdi ukituei —sindikatuak, enpresa-elkarteei, enpresei eta Hezkuntza

Sailari—, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardueran arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena dagokio, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, Bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Ikastetxe publiko, itundu eta pribatuetako jantokietan azpikontratutako zerbitzuak ematen dituzten enpresetan lan egiten duten langileek 2021eko maiatzaren 26rako, lanaldi osoan, deitu den greba-eskubidea baliatu ahal izango dute, baldin eta jarraian adierazten diren gutxieneko zerbitzuak bermatzen badituzte:

1.- Jantoki-zerbitzua bermatuko da: erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuko dira, bai ikastetxeetan bertan, bai ukitutako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu beharko da janaria ikastetxeetan banatuko dela. Aurreko eginkizunak sukaldeko langileen %10ek beteko dituzte. Baina %10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek gutxieneko zerbitzu horiek egin beharko ditu.

2.- Erabili eta botatzeko materiala erabili beharko da, ikasleei janaria emateko.

3.- Muntaketari, mahaien bilketari eta garbiketari dagokienez, bermatu behar da zerbitzu arrunta eta ikastetxeetako Kontingentzia Planetan jasotako gomendioak beteko direla, argitaratutako osasun-gomendioei eta Hezkuntza Sailaren gomendioei jarraikiz. Aipatu ditugun zerbitzu horiek egin ohi dituzten langileen %100ak egingo ditu (soilik zerbitzu horietan, ez bestelako zerbitzuak), eta soilik, ezinbestekoa den denborarako.

4.- Langile horien lanaldian, ikasleei arreta emateko eta jantokiak irekita mantentzeko, begiraleen ehuneko hauek ezartzen dira, zikloen eta hezkuntza-etapen arabera:

4.1. Haur Hezkuntzako ikasleak (1. zikloa: 2 eta 3 urte):

- 2 urte dituzten haurren ikasgeletan, begirale bat bederlatzi bazkaltiarreko talde bakoitzeko.
- 3 urte dituzten haurren ikasgeletan, begirale bat hamabost bazkaltiarreko talde bakoitzeko.

4.2. Haur Hezkuntzako ikasleak (2. zikloa: 4 eta 5 urte):

- Ikastetxeko begiraleen % 10. Baina % 10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek gutxieneko zerbitzu horiek egin beharko ditu.

4.3. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: elikadura-beharrak asetzeko ezinbestekoa den gutxieneko begirale-kopurua.

BIGARRENA.- 1. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan. Greba egiteko deitu diren langileen artean, zerbitzu horiek greba ez egitea erabakitzen duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresen zuzendaritzak esleituko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

LAUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

BOSGARRENA.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

SEIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 24an.

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**